



## **OHIKO OSOKO BILKURA SAIOARI DAGOKION AKTA, 2018KO**

### **UZTAILAREN 27AN EGINA**

#### **ALKATEA**

Juan Felix Naberan Ozamiz jauna (EAJ-PNV)

#### **ZINEGOTZIAK**

Julián Maria Uriarte Lamikiz jauna (EAJ-PNV)

Edorta Ibarra Basabe jauna (EAJ-PNV)

Eduarne Murga Santisteban andrea (EAJ-PNV)

Aitziber Ribas Bilbao andrea (EH BILDU)

Jasone Basterretxea Oyarzabal andrea (EH BILDU)

#### **EGON EZ DIREN ZINEGOTZIAK**

Carlos Mendiola Ugalde jauna (EAJ-PNV)

#### **IDAZKARIA:**

Amaia Abanzabalegui Aranguren andrea

Bi mila eta hamazortziko uztailaren hogeita zazpian, ostirala, Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan, arratsaldeko bostak eta hogeita hamar minutu izanik, Gautegiz Arteagako Udaletxeko Bilkura bildu da ohiko saioan eta lehen deialdian, aurretik horretarako deialdiari jarraiki.

Osoko Bilkurako zinegotzi guztiak saioan parte hartu zuten. Saio hau Alkate jaunaren aurrean egiten da, akta hau sinatzen duen idazkari-kontu-hartzailearen laguntzarekin.

Presidentziak Saioa ireki ondoren, **GAI-ZERRENDAN** dauden gaiiei buruz berba egin da:

**Lehenengo.-** 2018ko apirilaren 27ko data duen saioko aktaren zirriborroa onartzea, egokia bada.

Idazkariak 2018ko apirilaren 27ko saioko akta aditzera ematen du, eta hura aho batez onartzen da.

**Bigarren.- 2017ko ekitaldiari dagokion Gauteziz Arteagako Kontu Orokorra onartzea, egokia bada.**

**Ikusita** 2017ko Kontu Orokorra, eta horri erantsitako gainerako dokumentazioa, indarrean dagoen legedia betez.

**Ikusita** Kontu Batzorde Bereziaren aldeko txostena, 2018ko apirilaren 30ekoa.

**Ikusita** publikoki argitaratu zela, nahi duenak erreklamazioak, desadostasunak edo iruzkinak helaraz zitzaizkion, eta ez dela halakorik jaso, Idazkaritzaren 2018ko ekainaren 25eko ziurtagiriaren arabera.

**Kontuan hartuta** abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauan ezarritakoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.

Eta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.e) artikuluan ezarritakoa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak.

Udalbatzako Osoko Bilkurak, ekitaldira joan diren kideek aho batez hala erabaki ondoren, **HITZARTZEN DU:**

**Lehena.-** 2017ko Kontu Orokorra onartzea.

**Bigarren.-** Onetsitako Kontu Orokorra eta horri erantsitako gainerako dokumentazioa Herri Kontuen Euskal Epaitegiari ematea, abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 63. artikuluan xedatutakoa betez.

**Hirugarren.- Gauteziz Arteagako udalerrian merkataritza txikiari zuzendutako diru-laguntzen emakida arautzen duen ordenantza onartzea, egokia bada.**

**Ikusita** ordenantza bat onartu beharra dagoela Gauteziz Arteagan kalean bertan kokatuta dauden merkataritza txiki berria sortu eta sustatzeko.

**Ikusita** 2018ko ekainaren 8ko eta 13ko informazio batzordeen aldeko irizpenak.

**Kontuan hartuta** ordenantzak onartzeko prozedura, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarria.

Udalbatzako Osoko Bilkurak, ekitaldira joan diren kideek aho batez hala erabaki ondoren, **HITZARTZEN DU:**

**LEHENA.-** Gauegiz Arteagako udalerrian merkataritza txikiari zuzendutako diru-laguntzen emakida arautzen duen ordenantza ordenantza” behin-behinean onartzea, egokia bada, testua honako hau izanik:

## **“GAUTEGIZ ARTEAGAKO UDALERRIAN MERKATARITZA TXIKIARI DIRU-LAGUNTZAK EMATEARI BURUZKO ORDENANTZA PROPOSAMENA**

### **1. artikulua.- Xedea**

Oinarri hauen helburua, Gauegiz Arteagako udalerrian kalean bertan zerbitzuen sektoreko mikroenpresa eta merkataritza-enpresa txikien ezarpena sustatzeko diru-laguntzen baldintzak arautzea da. Helburu hori betetzea baldintzatuta egongo da, aurrekontu-kreditu nahikoa egon beharko da eta.

Diru-laguntzat joko da Udalak ematen duen eta ekonomikoki baliozta daitekeen edozein laguntza, zuzena zein zeharkakoa, Udalbatzako Alkateak ematen badu Ordenantza honetan zehaztutako baldintzetan.

### **2. artikulua.- Diru-laguntzaren helburua**

Deialdi publiko honen xedea, Gauegiz Arteagako zerbitzuen sektoreko merkataritza eta enpresaburuei diruz laguntzea da, merkataritza txikiaren barruan negozio berriak sortzen laguntzeko (mikroenpresak eta merkataritza-enpresak).

### **3. artikulua.- Araubide juridikoa**

Diru-laguntzak norgehiagoka bidez kudeatuko dira, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22. artikuluan eta Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailearen 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 59. artikuluan ezarritakoarekin bat. Deialdi irekia da. Deialdiak parekotasuna eta diskriminaziorik eza, publizitatea eta gardentasuna, konkurrentzia eta objektibotasuna ditu oinarri. Diru-laguntza emateko, interes orokorraren baldintza bete behar da.

#### 4. artikulua.- Onuradunak

Diru-laguntza honen onuradunek baldintza eta obligazio hauek bete behar dituzte:

- Pertsona fisiko edo juridikoak izan behar dira, diru-laguntzaren deialdia egiten den urtean Gauegiz Arteagan merkataritza-jarduera bat abiarazten dutenak, kalean bertan.

- Diru-laguntza eskatu baino lehen, Udalari jakinarazi behar dio udalerrian jarduera ekonomikoaren alta egin duela (alta ekonomia-jardueren gaineko zergan, erantzukizunpeko adierazpena, irekitzeko lizentzia).

- Diru-laguntza jasotzen duen denda gutxienez 3 urtez egon beharko da martxan, irekitzeko lizentzia eskuratzen den edo erantzukizunpeko adierazpena aurkezten den unetik aurrera zenbatzen hasita.

- Helbide soziala Gauegiz Arteagan izatea.

- Mikroenpresen eta enpresa txikien artean egon behar dira honako hauek:

- o Mikroenpresa: 10 langile edo gutxiago dituen eta urtean gehienez ere 2 milioi euroko balantze orokorra duena (TC2 eta Merkataritza Erregistroan aurkeztutako azken urteko kontuen kopia erkatua eta/edo Sozietateen gaineko Zerga, izaera juridikoa duten erakundeen kasuan; autonomoen kasuan, azken errenta-aitorpenaren ziurtagiria).

- o Enpresa txikia: 25 langile edo gutxiago dituen eta urtean gehienez ere 5 milioi euroko balantze orokorra duena (TC2 eta Merkataritza Erregistroan aurkeztutako azken urteko kontuen kopia erkatua eta/edo Sozietateen gaineko Zerga, izaera juridikoa duten erakundeen kasuan; autonomoen kasuan, azken errenta-aitorpenaren ziurtagiria).

- o Langile-kopuruaren batezbestekoa kalkulatzeko, urtean lanaldi osoan lan egiten duten langileak hartuko dira kontuan. Lanaldi partziala duten langileak, berriz, lan egindako ordu-kopuruaren arabera zenbatuko dira.

- o Establezimenduan gehienez ere 500 metro karratu erabiltzea salmentarako (lokal bat baino gehiago dagoen kasuetan, horietako bakoitzak bete behar du 500 metro karratuko muga hori; azalera hori kalkulatzeko, EJZn ezarritakoa hartuko da kontuan).



o Arestian aipatutako baldintzaren bat betetzen ez duten enpresek negozioaren %25 edo gehiago ez izatea, edo horiei lotuta ez egotea (eratzeko eskriturak eta estatutuak).

- Jarduera nagusia zerbitzuen sektorekoa izan behar da.

- Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan jasota dagoen egoeraren batean ez egotea.

- Erakundeak indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga-zorrak kitatuta izatea (Foru-ogasunarekin edo dagokionarekin) eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioekin egunean egotea.

### **5. artikulua.-Diruz lagundu ahal diren gastuak.**

Diruz lagundu ahal dira, gutxienez enpresaren lehen hiru urteetan, enpresek zerbitzuen sektoreko negozio txiki edo mikroenpresa berriak sortzera eta finkatzera zuzentzen dituzten gastuak, betiere negozioak Gauegiz Arteagan kalean bertan badaude.

Erakunde onuradun bakoitzak eskaera bakarra aurkeztu ahal du; lokal baten gastuak behin baino ez dira diruz lagunduko, nahiz eta onuradun desberdinek eskaera aurkeztu.

### **6. artikulua.- Diruz lagunduko den gehienezko zenbatekoa guztira**

Deialdirako erabiliko den kredituaren zenbatekoa dagokion aurrekontu partidan ageriko da, onartutako udaleko aurrekontuarena; edo, bestela, deialdia egiten den ekitaldira arte atzeratuko da.

Erakunde onuradun bakoitzari hasierako inbertsioaren %70 diruz lagunduko zaio gehienez ere, 3.000 euroko mugarekin; diru hori hiru aurrekontu-ekitalditan ordainduko da.

Hasierako inbertsio deritzo negozio proiektu bat martxan jartzeko lehen urtean inbertitu behar den diru-kopuruari.

### **7. artikulua.- Beste diru-laguntza batzuekiko bateragarritasuna.**

Gauegiz Arteagako Udalak emandako diru-laguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuek

emandakoekin. Edonola ere, diruz lagundutako programa edo jarduera burutzeko eskuratutako finantzaketa guztira ezingo da izan haren kostua baino handiagoa.

Diru-laguntzak jasotzen dituzten erakundeek, hala balegokie, udalari jakinarazi beharko diote eskabidea egin ondoren xede berbererako diru-laguntzak edo laguntzak jasotzen badituzte.

### **8. artikulua.- Deialdia**

Urtero, Gauegiz Arteagako Udalak, Alkatetzaren Ebazpen bitartez, dagokion deialdi publikoa egingo du, bertan ezartzen den epean interesdun guztiek eskabidea aurkez dezaten, eskatzen den informazioarekin batera.

Eskabideak aurkezteko epea uneko urteko abenduaren 31n bukatuko da, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

### **9. artikulua.- Eskabideak eta dokumentazioa**

Deialdia ireki ondoren, diru-laguntza eskatu nahi duten erakunde onuradunek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- I. eranskina beteta eta pertsona eskudunaren sinadurarekin.
- Pertsona fisikoen kasuan:
  - NAN
  - Azken autonomo kuotaren ordainagiria
  - Azken errenta-aitorpenaren ziurtagiria
- Pertsona juridikoen kasuan:
  - Erakundearen IFK/IFZ
  - Eskaera sinatzen duen pertsonaren edo erakundearen ordezkariaren NAN / IFZ.
  - Enpresa eratzeko eskriturak eta estatutuak.
  - Diru-laguntza eskatzen duen erakundearen izenean jarduteko baimena egiaztatzen duen dokumentazioa eta ordezkariaren NANaren fotokopia.
  - Sozietateen gaineko Zergaren azken aitortpena.



- Foru Ogasunak igorritako ziurtagiria, alta egina duela eta ordainketak egunean dituela egiaztatzen duena.
- Gizarte Segurantzak igorritako ziurtagiria, alta egina duela eta ordainketak egunean dituela egiaztatzen duena.
- Diru-laguntza ordaintzeko bankuko datuak.
- Negozio txikiaren proiektua edo memoria, zeinentzako diru-laguntza eskatzen den; dokumentuak honako informazio hau bildu behar du:
  - i. Jardueraren eta xedearen deskribapen xehatua.
  - ii. Hasierako inbertsioaren aurrekontua, lehen urterako aurreikusi edo egin diren diru-sarrerak eta gastuak zehaztuta
  - iii. Diru-laguntzarekin ordaindu nahi den zenbatekoa guztira.
- Hasierako inbertsioarekin ordaindu diren gastuen frogagiriak, hau da, negozio berria sortzean eta ezartzean izandako eta diru-laguntzarekin ordaindu nahi diren gastuenak, horien fakturak (originalak zein fotokopia erkatuak) aurkeztuta. Gastuak faktura elektronikoen bidez ere egiazta daitezke, betiere, zergen arloan onartuak izateko baldintzak betetzen badituzte.
- Zinpeko deklarazioa, erakundeak Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan adierazitako baldintzak betetzen dituela adieraziz, eta ondorioz onuradun izan daitekeela, eta lege bereko 14. artikuluan ezarritakoari jarraiki dagozkion baldintzak betetzeko konpromisoa hartzen duela.
- Eskabide hau aurkeztu aurretik helburu berbererako eskatu diren beste diru-laguntzen edo laguntzen deklarazioa. Horrekin batera, beste Erakundeek emandako diru-laguntzen emakida akordioen fotokopiak aurkeztu beharko dira.

Erakunde eskudunak dokumentu guztiak erkatu behar ditu; bestela, dokumentu originalak entregatu beharko dira.



### **9. artikulua.- Eskabide osatu gabeak eta/edo akastunak.**

Aurkeztutako eskabideren batek baldintzak beteko ez balitu, interesdunei jakinarazi eta hamar eguneko epea emango zaie aurkitutako akatsak zuzentzeko. Epe hori igarota akatsak zuzendu ez badira, diru-laguntzari uko egiten zaiola ulertuko da, eta eskabidea besterik gabe artxibatuko dela.

### **10. artikulua- Organo izapidegilea**

Txostenaren izapidegilea Gauegiz Arteagako Udaleko Informazio Batzordearen burua izango da.

Egindako ebaluazioaren emaitza eta onesteko proposamena biltzen dituen txostena igorriko duen kide anitzeko organoa Gauegiz Arteagako Udaleko Informazio Batzordea izango da.

Udalbatzako Alkateak hartuko ditu diru-laguntzen gaineko erabakiak.

### **11. artikulua- Eskabideen ebazpena.**

1. Eskabideak gehienez ere hiru hilabeteko epean ebatzi eta jakinaraziko zaizkie interesdunei (ahal bada, bide elektronikoa erabiliz), eskaera aurkeztu eta hurrengo egunetik arrera zenbatzen hasita.

Interesdunek eskabideak ezetsi direla uler dezakete, administrazio-isiltasunagatik, epea igarota berariazko ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada.

2. Ebazpena Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan xedatutakoaren arabera jakinaraziko da.

Ebazpena ezezkoa bada, argudioak eman beharko dira. Ebazpena baiezkkoa bada, udalak idatziz azaldu behar du zein irizpidetan oinarritu diren kopurua onartzeko.

3. Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 18. artikuluan ezarritako moduan egiteaz gain, udaleko iragarki-taulan argitaratuko da ebazpena, eta emandako diru-laguntzak webgunean ere bai.





## **12. artikulua- Diru-laguntzak emateko prozedura eta esleipen-irizpideak**

Diru-laguntzak norgehiagoka emango dira, ekitaldi bakoitzeko aurrekontuetan aurreikusitako partida agortu arte.

Hona hemen esleipen-irizpideak:

- Eman nahi den zerbitzua Euskadi mailan berritzailea izatea: 30 puntu
- Proposatzen den zerbitzua udalerrri mailan berritzailea izatea: 30 puntu.
- Proposatzen den zerbitzua udalerrian beharrezkoa izatea: 20 puntu.
- Erakunde onuradunak bestelako diru-laguntzarik jaso ez izana: 10 puntu.

## **13. artikulua.- Diru-laguntzen ordainketa**

Alkateak emandako diru-laguntzak honela ordainduko dira:

- 1. urtean, hura onartu eta jarduera justifikatu ondoren, hurrengo artikuluan ezartzen den bezala: %40.
- 2. urtean, hurrengo ekitaldian eta jarduera justifikatu ondoren, hurrengo artikuluan ezartzen den bezala: %30.
- 3. urtean, hurrengo ekitaldian eta jarduera justifikatu ondoren, hurrengo artikuluan ezartzen den bezala: %30.

## **14. artikulua.- Justifikazioa**

Diru-laguntza eman ondoren, eta, edonola ere, dagokion urteko urtarrilaren 31 baino lehen, erakunde onuradunak dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

1. urtean:

- II. eranskina beteta eta pertsona eskudunaren sinadurarekin.
- Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko Memorian diruz lagundu ahal diren gastu guztiak ageri ez badira, gastu guzti-guztiak biltzen dituen beste Memoria bat aurkeztu beharko da.

- Eskaera aurkeztean diruz lagundu ahal diren gastu guztien fakturak erantsi ez badira, faktura horiek aurkeztu beharko dira.

- Eskaerarekin batera aurkeztutako Memorian emandako datuetan aldaketarik egon ez bada, hala jakinarazi behar zaio Udalari, deklarazio bidez.

- Eskaera egitean aurkeztu ezin izan baziren, beste Erakundeek emandako diru-laguntzen emakida akordioen fotokopiak edo eskatutako diru-laguntza eta laguntzen deklarazioa, Gautegiz Arteagako udalean diru-laguntzaren eskabidea aurkeztu ondoren.

## 2. urtean:

- II. eranskina beteta eta pertsona eskudunaren sinadurarekin.
- Jarduera oraindik indarrean dela frogatzen duen edozein dokumentu.

- Hemen adierazitako antzeko xedearekin diru-laguntzaren bat jaso bada, beste Erakundeek emandako diru-laguntzen emakida akordioen fotokopiak edo eskatutako diru-laguntzen aitortpena, Gautegiz Arteagako udalean diru-laguntzaren eskabidea aurkeztu ondoren.

## 3. urtean:

- II. eranskina beteta eta pertsona eskudunaren sinadurarekin.
- Jarduera oraindik indarrean dela frogatzen duen edozein dokumentu.

- Hemen adierazitako antzeko xedearekin diru-laguntzaren bat jaso bada, beste Erakundeek emandako diru-laguntzen emakida akordioen fotokopiak edo eskatutako diru-laguntzen aitortpena, Gautegiz Arteagako udalean diru-laguntzaren eskabidea aurkeztu ondoren.

Gautegiz Arteagako Udalak diruz lagundutako negozioen jarraipena egingo du, eta edozein unetan eska ditzake behar beste azalpen edo agiri. Udal araubide honetan araubetutako diru-laguntzaren bat jaso duten subjektuen kontabilitatearen ikuskaritza egin dadila ere eska dezake.



### **15. artikulua.- Desberdintasunak**

Diruz lagundutako jarduera justifikatzean adierazitako jardueraren kostu errealak eta aurkeztutako eskabidean adierazitakoa bat ez badatoz, zera egingo da:

-Jardueraren kostua eskabidean adierazitakoa baino txikiagoa bada, murrizketa hori eragiten duten arrazoiak aztertu eta gero, Alkateak diru-laguntzaren zenbatekoa murriztea erabaki ahalko du, jardueraren kostua murriztu den proportzio berean.

-Jardueraren kostua eskabidean adierazitakoa baino handiagoa bada, diruz lagunduko da bi zenbatekoen arteko alde hori diru-laguntza jasotzen den urteko abenduaren 31 baino lehen jarduera justifikatzen den kasuetan, eta betiere, aurrekontu partidan kreditu nahikoa badago.

### **16. artikulua.- Diru-laguntza itzultzea**

Erakunde onuradunek emandako diru-laguntza gal dezakete honako kasu hauetan:

-Jarduera justifikatzeko dokumentazioa ez aurkezteagatik, edota epea kanpo aurkezteagatik.

-Emandako diru-laguntza eskatu zen xede jakinetarako ez erabiltzea.

-Datuak desitxuratu edo ezkutatzegatik, eskabidean zein jarduerak justifikatzeko dokumentazioan.

-Oro har, Ordenantza honetan eta Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorrean ezarritako obligazioak ez betetzeagatik.

Alkateak diru-laguntza itzultzea eskatu ahal izango du, horretarako arrazoiak emanda. Horrez gain, ebazpen horretan onuradunari/arau-hausleari bi urtetan diru-laguntza berririk ez ematea adostu ahal izango dira.



## **AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA**

I. eranskina beteta eta sinatuta.

Pertsona fisikoen kasuan:

- NAN
- Azken autonomo kuotaren ordainagiria
- Azken errenta-aitorpenaren ziurtagiria

Pertsona juridikoen kasuan:

- Erakundearen IFK/IFZ
- Eskaera sinatzen duen pertsonaren edo erakundearen ordezkariaren NAN / IFZ.
- Enpresa eratzeko eskriturak eta estatutuak.
- Diru-laguntza eskatzen duen erakundearen izenean jarduteko baimena egiaztatzen duen dokumentazioa eta ordezkariaren NANaren fotokopia.
- Sozietateen gaineko Zergaren azken aitortpena.

Diru-laguntzaren xede den jardueraren proiektua edo memoria. Bertan, jardueraren edukia, helburua, hasierako inbertsioaren aurrekontua (lehen urterako aurreikusi edo izan diren diru-sarrerak eta gastuak zehaztuta) eta diru-laguntzaren bidez ordaindu nahi den zenbatekoa guztira adierazi behar dira.

Diruz lagundu nahi den jarduera berdinari lotuta beste diru-laguntzaren bat eskatu edo jaso bada, ebazpenaren edo eskaeraren kopia.

Gauegiz Arteagako Udalarari haiek telematikoki kontsultatzeko baimena ematen EZ bazaio, erakundeak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatearen ziurtagiriak, indarrean dauden xedapenek ezarritakoaren arabera. Dokumentu horiek nahitaez aurkeztu behar dira.

-----

*Zure datu pertsonalak Gauegiz Arteagaren informazio fitxategi batean gordeko dira, udal-kudeaketak eskatzen dituen egitekoak gauzatze aldera. Dagokion araudian jasotzen diren eskubideak erabil ditzakezu.*





AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA  
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

**AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA**

II. eranskina beteta eta sinatuta.

1. urtean:

- Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko Memorian diruz lagundu ahal diren gastu guztiak ageri ez badira, gastu guzti-guztiak biltzen dituen beste Memoria bat aurkeztu beharko da.
- Eskaera aurkeztean diruz lagundu ahal diren gastu guztien fakturak erantsi ez badira, faktura horiek aurkeztu beharko dira.
- Eskaerarekin batera aurkeztutako Memorian emandako datuetan aldaketarik egon ez bada, hala jakinarazi behar zaio Udalari, deklarazio bidez.
- Eskaera egitean aurkeztu ezin izan baziren, beste Erakundeek emandako diru-laguntzen emakida akordioen fotokopiak edo eskatutako diru-laguntza eta laguntzen deklarazioa, Gauegiz Arteagako udalean diru-laguntzaren eskabidea aurkeztu ondoren.

2. eta 3. urtean:

- Jarduera oraindik indarrean dela frogatzen duen edozein dokumentu.
- Hemen adierazitako antzeko xedearekin diru-laguntzaren bat jaso bada, beste Erakundeek emandako diru-laguntzen emakida akordioen fotokopiak edo eskatutako diru-laguntzen aitortpena, Gauegiz Arteagako udalean diru-laguntzaren eskabidea aurkeztu ondoren.

-----

*Zure datu pertsonalak Gauegiz Arteagaren informazio fitxategi batean gordeko dira, udal-kudeaketak eskatzen dituen egitekoak gauzatze aldera. Dagokion araudian jasotzen diren eskubideak erabil ditzakezu.”*

**BIGARREN.-** Webgunean argitaratzea, hiritarrek beren iritzia emateko aukera izan dezaten.

**HIRUGARREN.-** Behin-behineko onarpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoa betez.

**Laugarren.-** Gauegiz Arteagako diru-laguntzen plan estrategikoa 2016-2018 agirian egindako aldaketa onartzea, egokia bada.

**Ikusita** “Gauegiz Arteagako diru-laguntzen plan estrategikoa 2016-2018” aldatu behar dela, Gauegiz Arteagan merkataritza txikiari zuzendutako diru-laguntzen emakida arautzen duen ordenantza onartze aldera.

**Ikusita** Informazio Batzordearen aldeko irizpena, 2018ko uztailaren 13koa.



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA  
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

Udalbatzako Osoko Bilkurak, ekitaldira joan diren kideek aho batez hala erabaki ondoren, **HITZARTZEN DU:**

LEHENA.- “Gauegiz Arteagako diru-laguntzen plan estrategikoa 2016-2018” agirian egindako aldaketak onartzea, proposatutako aldaketak honako hauek izanik:

**“V. KAPITULUA: MERKATARITZA TXIKIARI ZUZENDUTAKO DIRU-LAGUNTZAK**

**11. ARTIKULUA.**

*Kirolari dagokionez, Udalak diru-laguntza ildo hauek eskainiko ditu Plana indarrean dagoen bitartean:*

*a) Helburuak: Gauegiz Arteagan merkataritza txiki berria sortu eta sustatzea.*

*b) Lortu nahi dena: Gauegiz Arteagan merkataritza txikien sare egonkorra sortzea.*

*d) Aurreikusitako kostuak: 4.000,00 euro urtean.*

*e) Finantzaketa: Funts propioekin finantzatuko da, Aurrekontuen laugarren kapituluaren kontura.*

*f) Ekintza-plana: Gauegiz Arteagako merkataritza berriei diru-laguntza emanaz.”*

HIRUGARREN.- Proposatutako aldaketak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udalaren webgunean argitaratzea.

**Bosgarren**.- 2018ko ekitaldiko aurrekontuan egindako aldaketak onartzea, egokia bada.

**Ikusita** aurreikuspenen arabera aurten aurrekontuaren erdia baino ez dela erabiliko Zelaieta kalean egingo diren lanetarako (VI. kapitulua), soropila mozteko makina bat erosi beharko dela (VI. kapitulua) eta langileei lotutako gastuak areagotuko direla, baja mugagabeak direla eta (I. kapitulua).

**Ikusita** Informazio Batzordearen aldeko irizpena, 2018ko uztailaren 13koa.

**Ikusita** Idazkari kontu-hartzailea aldeko txosten teknikoak.





AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA  
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

**Kontuan hartuta** abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 29. eta 30. artikuluetan ezarritakoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa, eta Aurrekontua betearazteko Gauegiz Arteagako Udal Arauaren 4. artikuluan ezarritakoa, zeinen arabera tokiko erakundeko presidenteari dagokion programa talde baten barruan transferentziak egitea, inbertsio errealerako kontsignazioak murrizten dituztenen kasuan izan ezik (VI. kapitulua); azken kasu horretan, Osoko Bilkurak onartu beharko ditu, kasu honetan bezalaxe.

Udalbatzako Osoko Bilkurak, ekitaldira joan diren kideek aho batez hala erabaki ondoren, **HITZARTZEN DU:**

LEHENA.- Aurrekontu aldakuntzak onartzea, kreditu-transferentzia bidez, edukia hau izanik:

Gastuen egoera-orrian murriztu beharreko partidak:

<u>Partida</u>	<u>Izena</u>	<u>Kredituak</u> <u>guztira</u>	<u>Murrizketa</u>
1532 60104	LANAK ZELAIETA KALERAKO SARBIDEAN	153.709,33 €	38.000 €

Kreditu bajak guztira 38.000

Gastuen egoera-orrian areagotu beharreko partidak:

<u>Partida</u>	<u>Izena</u>	<u>Kredituak</u> <u>guztira</u>	<u>Areagotzea</u>
920.62301	MAKINERIA	1.000 €	10.000 €
920.62304	LANGILEEN ERREMINTAK ETA TRESNAK	500 €	2.000 €
920 13101	KONTRATATUTAKO BESTE LANGILE BATZUK	12.000 €	20.000 €
231 48000	FAMILIENTZAKO DIRU- LAGUNTZAK	9.000 €	3.000 €
334 48102	UDAL ERAKUNDEENTZAKO	8.000 €	3.000 €



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA  
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

	DIRU-LAGUNTZAK		
--	----------------	--	--

Kreditu areagotzeak guztira 38.000

**Seigarren.- Pentsioei buruzko adierazpen instituzionala onartzea, egokia bada.**

**Ikusita** pentsioen egungo egoera eta etorkizunera begira haiei lotuta dagoen ziurgabetasuna.

**Ikusita** parlamentuko talde batzuek Gobernuaren proposamenari buruzko mozioan, alegia, Gizarte Segurantzaren eta pentsioak modu egokian aquiratu kudeatzea, eta pentsioen sistema publikoari buruzko Legearen aldaketari lotuta egindako transakzio-zuzenketa, 2018ko martxoaren 1ekoa.

**Kontuan hartuta** Informazio Batzordearen aldeko irizpena, 2018ko uztailaren 13koa.

**Kontuan hartuta** azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82. artikulua, Toki Erakundearen Antolakuntza, Jarduera eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duena.

Udalbatzako Osoko Bilkurak, ekitaldira joan diren kideek aho batez hala erabaki ondoren, **HITZARTZEN DU:**

**LEHENA.-** Gai gau gai-zerrendan gehitu dela berrestea.

**BIGARREN.-** Pentsioen babesari buruzko adierazpen instituzionala onartzea, testua hau izanik:

“Gauteviz Arteagako Udalak, pentsioen sistema publiko baten alde eginez, belaunaldien arteko solidaritatea bermatzen duena eta bizi-baldintza duinak dituen gizartearen oinarria dena, honako hau eskatzen dio Estatuko Gobernuari:

1. Pentsioen sistema nahikoa eta iraunkorra berma dezala, pentsio duina jasotzeko eskubidean oinarritua, solidaritate eta gardentasun esparru baten barruan, egiazko finantzaketa-iturriekin, aurrez ikusi daitezkeen pentsio duinak bermatu ahal izateko.

2. 23/2013 Legea indargabetu dezala, Gizarte Segurantzaren Pentsio Sistemaren Jasangarritasun Faktorea eta Errebalorizazio Indizea arautzen duena, pentsio duinak bermatzeko, berriz ere KPIa erabiliz pentsioak eguneratzeko.

3. Pentsioen Erreserbako Funtseko dirua kotizazioen defizitari aurre egiteko erabiltzea debeka dezala, legez, eta PPren gobernuak ezabatutako %3a berreskuratzea, pentsioen sistema publikoaren jasangarritasunaren finantza-bermeko mekanismo bezala erabiltzen jarraitu ahal izateko.



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA  
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

4. Finantzaketa neurriak har ditzala, sistemako diru-sarrerak handitzeko, kontratazio irregularren aurka egiteko eta kontratazioetan iruzurrak desagerrarazteko, eta kotizazioetan dauden finantzaketa-defizitak osatzea, Estatuko Aurrekontu Orokorretatik dirua hartuta.

5. Gizarte Segurantzako Sistemaren gastuetan esku har dezala, enpresen kotizazioan dauden salbuespen, hobari eta murrizketak kenduz, eta administrazio erakundeen kudeaketa gastuetan ere bai, Gizarte Segurantzaren administrazio gastuak zuzenean Estatuko Aurrekontu Orokorrekin finantzatuta.

6. 2012ko lan-erreforma indargabetu dezala, enpleguaren kalitatean eta kotizazioetan izan dituen ondorio kaltegarriak ezabatze aldera; izan ere, kotizazioak murriztean, kolokan jartzen da pentsioen sistema publikoaren jasangarritasuna. 5/2013 ELDan erretiro aurreratuaren arauketa indargabetu dezala.

7. EAeko pentsiodunen egoera hobetzeko nahitaezko baldintza denez gero, Gizarte Segurantzaren eskumenak lehenbailehen EAeri eskualdatzea, Gernikako Autonomia Estatutua onartzen duen 3/1979 Lege Organikoaren 18.2 artikuluan eta 5. Xedapen Iragankorrean ezarritakoa betez, bere izaera unitarioaren barruan eta solidaritatearen printzipioa errespetatuz.

Gauegiz Arteagan, 2018ko uztailaren 27an”

**Zazpigarren.- Ekonomiari eta aurrekontuei buruzko informazioa.**

Idazkariak 2018ko aurrekontuaren gauzatze egoeraren berri eman du.

Ulertu dute.

**Zortzigarren.- Alkatetza Dekretuen kontu ematea.**

**58/2018 Dekretua.-** 3/2018 zenbakidun espediente, Kredituak gaitzeari buruzkoa.

**59/2018 Dekretua.-** Gernikako Udalari aulkiak eskatzeari buruzkoa, apirilaren 28an egingo den Bertsolaritza Txapelketari begira.

**60/2018 Dekretua.-** Gobernu-batzarraren deialdia 2018ko apirilaren 27rako.

**61/2018 Dekretua.-** O201815 ordainketa-agindua, soldatak.

**62/2018 Dekretua.-** 2019ko irailak 2, Antolin Deuna, Gauegiz Arteagako tokiko jaiegun aitortzea.

**63/2018 Dekretua.-** O201816 ordainketa-agindua, udalkideen eta alderdi politikoaren dietak.



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA  
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

**64/2018 Dekretua.-** Ohiko Osoko Bilkuraren saioaren deialdia 2018ko maiatzaren 11rako.

**65/2018 Dekretua.-** 4/2018 kreditu transferentzia indarrean dagoen udalaren Aurrekontuaren Gastuen Egoera-orriko partiden artean.

**66/2018 Dekretua.-** “Arrisku anitzeko aseguru” zerbitzuaren kontratu txikia Allianz Seguros e Inversores erakundeari (IFK: 95261368F) esleitzea, 2018ko maiatzaren 7an aurkeztutako eskaintzogatik (868 zenbakidun sarrera-erregistroa), 2.848,35 €-koa (BEZ barne).

**67/2018 Dekretua.-** “Istripu-aseguru kolektiboa” zerbitzuaren kontratu txikia Allianz Seguros e Inversores erakundeari (IFK: 95261368F) esleitzea, 2018ko maiatzaren 7an aurkeztutako eskaintzogatik (868 zenbakidun sarrera-erregistroa), 183,03 €-koa (BEZ barne).

**68/2018 Dekretua.-** “Erantzukizun zibileko aseguru” zerbitzuaren kontratu txikia Allianz Seguros e Inversores erakundeari (IFK: 95261368F) esleitzea, 2018ko maiatzaren 10ean aurkeztutako eskaintzogatik (912 zenbakidun sarrera-erregistroa), 1.154,06 €-koa (BEZ barne), kalitatearen aldetik eta ekonomikoki eskaintzarik onena izan delako; izan ere, besteak beste, 1.200.000 €-ko erantzukizun profesionala biltzen du, eta gainerako eskaintzek, berriz, 600.000 €-koa.

**69/2018 Dekretua.-** O201818 ordainketa-agindua, gastu orokorrak.

**70/2018 Dekretua.-** “Bizi-aseguru” zerbitzuaren kontratu txikia Adartia Correduría de Seguros erakundeari (IFK: 95374971A) esleitzea, 2018ko maiatzaren 8an aurkeztutako eskaintzogatik (888 zenbakidun sarrera-erregistroa), 1.112,24 €-koa (BEZ barne).

**71/2018 Dekretua.-** A.F.E.-ri baimena emateko 2003. urterako langile postua betetzeko lan-poltsari lotutako hautaketa-prozesuaren espedientea ikusteko eta hautaketa-prozesuaren azken zerrendaren kopia eskuratzeko.

**72/2018 Dekretua.-** A.G.S.-ri (NAN: 78994440-C) baimena ematea 2018. urtean zehar Erabilera Publikoko Atxarrea mendian egurra mozteko, hura etxean erabiltzeko.

**73/2018 Dekretua.-** Gauegiz Arteagako gizarte, kultura eta kirol esparruko irabazi-asmorik gabeko elkarteei zuzendutako 2018ko diru-laguntzen deialdia.



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA  
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

**74/2018 Dekretua.-** Gobernu-batzarraren ohiko bileraren deialdia 2018ko maiatzaren 25erako.

**74/2018 bis Dekretua.-** O201819 ordainketa-agindua, gastu orokorrak.

**75/2018 Dekretua.-** O201820 ordainketa-agindua, soldatak.

**76/2018 Dekretua.-** K.A.G-ri lizentzia ematea bi hilarri jartzeko senideen lurreko hilobian: Miren Gangoiti Naberan, Pedro Akordarrementeria Bekoetxea, Maria Naberan Aldamiz-Etxebarria, Bienbenida Bekoetxea Naberan eta Eugenio Gangoiti Nabera.

**77/2018 Dekretua.-** Informazio Batzordearen deialdia 2018ko ekainaren 8rako.

**78/2018 Dekretua.-** Gobernu-batzarraren deialdia 2018ko ekainaren 8rako.

**79/2018 Dekretua.-** O201821 ordainketa-agindua, gastu orokorrak.

**80/2018 Dekretua.-** O201822 ordainketa-agindua, gastu orokorrak.

**81/2018 Dekretua.-** O201823 ordainketa-agindua, ekaineko aparteko ordainsaria.

**82/2018 Dekretua.-** G.I.O.-ri (NAN: 14172587-X) aparkatzeko txartela emateko.

**83/2018 Dekretua.-** Gobernu-batzarraren deialdia 2018ko ekainaren 20rako.

**84/2018 Dekretua.-** O201824 ordainketa-agindua, maileguko gastu orokorrak.

**85/2018 Dekretua.-** O201825 ordainketa-agindua, gastu orokorrak.

**86/2018 Dekretua.-** “Udal hilerrian hezurtokiak eraikitzea” proiektua gauzatzea onartzeari buruzkoa, zenbatekoa 38.892,24 € (BEZ barne) izanik, 2018ko maiatzaren 8ko EHAAn argitaratutako eta jarraian adierazitako diru-laguntza eskatzeko: “Agindua, apirilaren 24koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baitira, 2018ko ekitaldirako, 2015-2020 aldirako EAEko Landa Garapeneko Programaren esparruan onartu zen Leader eremuko landa-inguruko udalerrien ekonomia sustatu, garatu eta dibertsifikatzeko laguntzak”.

**87/2018 Dekretua.-** Gobernu-batzarraren deialdia 2018ko ekainaren 28rako.

**88/2018 Dekretua.-** “Zelaieta kaleko espaloia irengarritasuna hobetzea. 1. fasea” proiektua gauzatzea onartzeari buruzkoa, zenbatekoa 47.085,96 € izanik (BEZ barne), 2018ko Leader diru-laguntzak eskatze aldera.

**89/2018 Dekretua.-** O201826 ordainketa-agindua, soldatak.

**90/2018 Dekretua.-** O201827 ordainketa-agindua, gastu orokorrak.



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA  
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

**91/2018 Dekretua.-** M.L.M.A.-ri (NAN: 14747856-A) lizentzia ematea Zelaieta 53 helbidean dagoen eraikinean aldarnio bat instalatzeko, teilatua konpontzeko, bat eta teilak eta teillatu-hodia ere.

**92/2018 Dekretua.-** Informazio batzordearen deialdia 2018ko uztailaren 13rako.

**93/2018 Dekretua.-** O201828 ordainketa-agindua, gastu orokorrak.

**94/2018 Dekretua.-** Ohiko Osoko Bilkuraren saioaren deialdia 2018ko uztailaren 27rako.

Ulertu dute.

### **Bederatzigarren.- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioen jakinarazpena.**

**28/2018.-** “Pilotalekuko estalkia konpontzea” obra-kontratu txikia Culmenor erakundeari (IFK: B39627203) esleitzea, 2018ko apirilaren 11n aurkeztutako eskaintzagatik (702 zenbakidun sarrera-erregistroa), 29.826,50 €-koa (BEZ barne).

**29/2018.-** “Oinezkoentzako bidean zabor-legarra jartzea” obra-kontratu txikia Urre, S.A. erakundeari esleitzea (IFK: A48108724), 2018ko apirilaren 14an aurkeztutako eskaintzagatik (sarrera-erregistroa: 783). Zenbatekoa: 3.504,70 € (BEZ barne).

**30/2018.-** “Bankuak jartzea” obra-kontratu txikia Urre S.A. erakundeari esleitzea (IFK: A48108724), 2018ko apirilaren 24an aurkeztutako eskaintzagatik (sarrera-erregistroa: 782). Zenbatekoa: 1.981,29 € (BEZ barne).

**31/2018.-** “Montorre Eskolako hornikuntzak eta instalazioa” kontratu txikia Andere Ugarte Olanori esleitzea (izen komertziala: Segarte Carpintería Metálica; NAN: 30635957-A), 2018ko apirilaren 24an aurkeztutako eskaintzagatik (sarrera-erregistroa: 780). Zenbatekoa: 18.141,92 € (BEZ barne).

**32/2018.-** “Montorre Eskolako leihoetan eltxo-sareak jartzea” kontratu txikia Sendoa Hormigo Jiménezzi (izen komertziala: Etxebarri Carpintería Metálica; NAN: 45824395-T) esleitzea, 2018ko apirilaren 25ean aurkeztutako eskaintzagatik (sarrera-erregistroa: 796). Zenbatekoa: 1.491,76 € (BEZ barne).

**33/2018.-** “Skate Parkerako elementuak” kontratu txikia Troem Ega Transformers, S.L. enpresari esleitzea (IFK: B-95575783), 2018ko apirilaren 26an



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA  
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

aurkeztutako eskaintzogatik (sarrera-erregistroa: 802). Zenbatekoa: 18.089,50 € (BEZ barne).

**34/2018.-** “Erantzukizun zibileko aseguruia” zerbitzuaren kontratu txikiaren esleipena atzeratzea.

**35/2018.-** “Bizi-aseguruia” zerbitzuaren kontratu txikiaren esleipena atzeratzea.

**36/2018.-** “Arrisku anitzeko aseguruia” zerbitzuaren kontratu txikiaren esleipena atzeratzea.

**37/2018.-** I.D.E., S.A. enpresari baimena ematea instalazioa egiteko, eta 13,2k V-ko eta lurpeko linea elektriko berriaren proiektua onartzea, “Gernika-Kanala Kosta CTO. 8”, “Bombeo Zelaieta” koadro teknikoaren eta “Zelaietas” koadro teknikoaren arteko lotunea, eta “Zelaietas” koadro teknikoa berritzea, Gautegiz Arteagan (Bizkaia), aurkeztutako exekuzio proposamenaren arabera.

**38/2018.-** D. J.I.C.-ri lizentzia ematea Gautegiz Arteagako (Bizkaia) Portu Errota birgaitzeko, aurkeztutako proiektuaren arabera, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatuaren, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultura Ondareko Zerbitzuaren txostenetan ezarritako mugekin.

**39/2018.-** “Urdaibaiko Organoak 2018” zerbitzu-kontratu txikia Urremendi erakundeari esleitzea (IFK: 48582027G), 2018ko apirilaren 19an aurkeztutako eskaintzogatik (sarrera-erregistroa: 758). Zenbatekoa: 1.750,82 € (BEZ barne).

**40/2018.-** “Kontabilitate aholkularitza” zerbitzu-kontratu txikia aholkularitzako Urrutia erakundeari esleitzea (IFK: 48582027G), 2018ko urtarrilaren 29an aurkeztutako eskaintzogatik (sarrera-erregistroa: 198), urtebeterako. Zenbatekoa: 720 € urtean (BEZ gabe).

**41/2018.-** “Agintari eta funtzionarioen erantzukizun zibileko aseguruia” zerbitzu-kontratu txikia Egiasa Correduría de Seguros erakundeari esleitzea (IFK: 48162598A), 2018ko maiatzaren 25ean aurkeztutako eskaintzogatik (sarrera-erregistroa: 1.068), A) aukera. Zenbatekoa: 756,32 € (BEZ barne).

**42/2018.-** “Bide jakin batzuk eskokatzea (Oletabidea, Ikoakane, Tremoia-Aldamiz, Kanala, Isla Goikoa)” zerbitzu-kontratu txikia Forestales Mugarri, S.L. erakundeari esleitzea (IFK: B95028577), 2018ko maiatzaren 23an aurkeztutako



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA  
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

1800053 aurrekontuagatik (sarrera-erregistroa: 1052). Zenbatekoa: 0,35 € metroko (errematearekin).

**43/2018.-** “Erabakia, 2018ko apirilaren 26koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluarena, zeinaren bidez onartzen baitira tokiko korporazioei laguntzak emateko 2018. urteko deialdia eta oinarri-arauak” eta “Agindua, apirilaren 24koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baitira, 2018ko ekitaldirako, 2015-2020 aldirako EAEko Landa Garapeneko Programaren esparruan onartu zen Leader eremuko landa-inguruko udalerrien ekonomia sustatu, garatu eta dibertsifikatzeko laguntzak” agirien bitartez deitutako diru-laguntzak eskatzeko beharrezkoak diren izapideak egiteko akordioa.

**44/2018.-** “Kultur Etxearen dinamizazio eta jendearentzako arreta” zerbitzua kontratatzeke espedientea hastea.

**45/2018.-** “Kultur eta kirol esparruko prestakuntza jarduerak” emateko zerbitzua kontratatzeke espedientea hastea.

**46/2018.-** “Negulekuak, paskualekuak eta udalekuak” zerbitzua kontratatzeke espedientea hastea.

**47/2018.-** “Kultur Etxearen dinamizazio eta jendearentzako arreta” zerbitzuaren kontratazio-espedientean ageri diren baldintza-agiriak onartzea eta prozeduraren jarraipena egitea.

**48/2018.-** “Kultur eta kirol esparruko prestakuntza jarduerak” emateko zerbitzuaren kontratazio-espedientean ageri diren baldintza-agiriak onartzea eta prozeduraren jarraipena egitea.

**49/2018.-** “Negulekuak, paskualekuak eta udalekuak” zerbitzuaren kontratazio-espedientean ageri diren baldintza-agiriak onartzea eta prozeduraren jarraipena egitea.

**50/2018.-** “5 paperontzi pilotalekurako” hornidura-kontratu txikia Benito Urban, S.L.U erakundeari esleitzea (IFK: B59987529), 2018ko ekainaren 15ean aurkeztutako 20677403 aurrekontuagatik (sarrera-erregistroa: 1246), 5 paperontziren hornidura eta garraioa barne hartzen duena. Zenbatekoa: 383,57 € (BEZ barne).

**51/2018.-** “Informazio panela skate parkerako” hornidura-kontratu txikia Nueva Europa, S.L. erakundeari esleitzea (IFK: B48726533), 2018ko ekainaren 11n aurkeztutako 28-B eskaintzagatik (sarrera-erregistroa: 1204), skate parkean informazio





AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA  
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

panela jartzeko. Zenbatekoa: 1.182,32 € (BEZ barne).

**52/2018.-** F.M.P.-ri (NAN: 52210869-H) obra-lizentzia ematea Gauteviz Arteagako Kanala 15 helbidean dagoen etxebizitzan (Miramar izenez ezaguna) fatxada margotzeko, arotzeria lanak egiteko eta etxebizitzaren estalkia zaharberritzeko, eskaeran aurkeztutako dokumentazioari jarraikiz.

**53/2018.-** J.M.L.M.-ri (NAN: 14945961-A) Ozollo Andikoa baserria (helbidea: Ozollo 3, Gauteviz Arteaga, Bizkaia) lehen aldiz okupatzeko lizentzia ematea, eskaeran aurkeztutako dokumentazioari jarraikiz.

**54/2018.-** A.V.-ri (AIZ: Y2265319 U) Ibieta Bekoa (Imintze) baserria (helbidea: Kanala 6, Gauteviz Arteaga, Bizkaia) zaharberritzeko lizentzia ematea, eskaeran aurkeztutako dokumentazioari jarraikiz.

**55/2018.-** Jarduteko irizpide orokorra: ispiluak auzo-bide publikoen bidegurutzeetan soilik jartzea, eta ez bide pribatuen bidegurutzeetan.

**56/2018.-** C.R.F.-ri (NAN: 51305864-V) Ponpone 7 – UA20ar (Gauteviz Arteaga, Bizkaia) helbideko espazioa ixteko lizentzia ematea, eskaeran aurkeztutako dokumentazioari jarraikiz.

**57/2018.-** C.R.F.-ri (NAN: 30660898-N) Ponpone 7 – UA20ar (Gauteviz Arteaga, Bizkaia) helbideko kanpo-espazioa ixteko lizentzia ematea, eskaeran aurkeztutako dokumentazioari jarraikiz.

**58/2018.-** Erregistro zibileko leiho baten hornidura eta hura jartzeko kontratu txikiari lotuta, Andere Ugarte Olanoren (NAN: 30635957-A) ukapena onartzea. “Erregistro zibileko leiho baten hornidura eta hura jartzea” kontratu txikia Illunzar construcciones erakundeari esleitzea (IFK: B95621421), 2018ko ekainaren 15ean aurkeztutako eskaintzagatik (sarrera-erregistroa: 1.251). Zenbatekoa: 916,66 € (BEZ barne). Kontratua bi hilabeteko epean burutu beharko da, hura onartzen dela jakinarazten den unetik aurrera.

**59/2018.-** “Montorre Eskolarako leihoen hornidura eta haiek jartzea” kontratu txikiari lotuta, Andere Ugarte Olanok (Segarte carpintería metálica; NAN: 30635957-A) aurkeztutako eskaera onartzea, kontratua aldatzeko. Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 203.2 artikuluari jarraikiz, “Montorre Eskolarako leihoen hornidura eta haiek jartzea” kontratu txikia ebazten da. Andere Ugarte Olanori esleitu zaio (Segarte



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA  
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

carpintería metálica; NAN: 30635957-A). Zenbatekoa: 18.141,92 € (BEZ barne). Horrez gain, “Montorre Eskolarako leihoen hornidura eta haiek jartzeko kontratu txiki” berria esleituko zaio Andere Ugarte Olanori (Segarte carpintería metálica; NAN: 30635957-A). Zenbatekoa: 17.294,92 € (BEZ barne). Kontratua bi hilabeteko epean burutu beharko da, hura onartzen dela jakinarazten den unetik aurrera.

**60/2018.-** “Montorre Eskolan leihoak jartzea” kontratu txikia Illunzar construcciones erakundeari esleitzea (IFK: B95621421), 2018ko ekainaren 15ean aurkeztutako eskaintzagatik (sarrera-erregistroa: 1.251). Zenbatekoa: 847 € (BEZ barne). Kontratua bi hilabeteko epean burutu beharko da, hura onartzen dela jakinarazten den unetik aurrera.

Ulertu dute.

**Hamargarren.- Galderak eta eskaerak**

- **Txakurrak Kanalako hondartzan:** Kanalako hondartzan dauden txakurrei dagokienez, Jasone Basterretxea Oyarzabal andreak adierazi du batzuetan hondartzainak hondartzara joaten direla.

- **Gautegiz Arteagako toponimiaren azterketa:** Gobernu taldeak adierazi du 2018. urtean lanak esleituko direla ikerlari batek Gautegiz Arteagan hasitako toponimia-azterketa bukatzeko. Lan horiek Julian Maria Uriarte Lamikiz jaunaren laguntzarekin gauzatuko dira. Zentzu horretan, segur aski hitzarmen bat sinatuko da Euskaltzaindiarekin.

- **Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO):** Komentatu da Aurrerapenaren lana bukatzeko eskatu zaiela HAPO idatzi duten pertsoneri, 2018ko urriaren 5ean dokumentua onetsi ahal izateko.

- **Desfibriladorea:** Edurne Murga Santisteban andreak komentatu du egokia izango litzatekeela desfibriladorea egokitutako kutxa batean izatea, Udaletxe azpian, behar duenak erabil dezan. Bileran dauden guztiek uste dute egun desfibriladorea ez



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA  
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

dagoela leku egokian, eta lekuz aldatu beharko litzatekeela. Hori dela eta, aurrekontuak eskatzea adostu da, Udaletxe azpian kutxa egoki bat jartzeko.

- **Tamaina handiko hondakinak:** Komentatu da toki batzuetan tamaina handiko hondakinak ikusi direla haiek ateratzeko baimendutako egunetatik kanpo. Kasu batzuetan horrek arazoak dakartza, eta hiritar batzuen gizalegerik edo informaziorik eza agerian uzten du. Zentzu horretan, edukiontzietan kartelak jartzea komeni dela adostu da, tamaina handiko hondakinak jasotzeko egunak zeintzuk diren gogorarazteko.

-----

**\*\*\*\*\*AKTAREN ITXIERA**

Lantzeko gai gehiago ez dagoenez, Alkate jaunak bertan izan diren guztiei eskerrak eman eta saioa amaitutzat jotzen du, goian aipatutako eguneko arratsaldeko zazpiak eta hamabost minutu izanik. Ondoren akta hau idazten da, ospatuko den hurrengo saioan onartu beharko dena, eta guztia Udalbatzako Idazkari gisa ONTZAT EMATEN DUT.

O°E°

ALKATEA,

IDAZKARIA,

Sinatua: Juan Felix Naberan Ozamiz

Sinatua: Amaia Abanzabalegui Aranguren